

Ikasle Elkartearen izaera

Ikasle Elkartea euskara ikasten ari direnen elkartea da, gelako ordutegitik kanpoko ekintzak antolatzeko asmoz sortua. Beraz, asmoa euskaraz bizitzea denez, hauek ekin-tzok ezinbestekoak ikusten ditugu helburua lortzeko.

Orain dela bi urte Kaltxango AEK Euskaltegiaren inguruan hainbat ekintza antolatzen hasi ziren. Bestalde, talde horretan euskararen aldeko jarrera daukan edozeinek har dezake parte, baina une hauetan batez ere ikasleak, ikasle-ohiak eta Kaltxangoko irakasleak biltzen dira bertan.

Taldearen asmoa oso argia da: euskaraz bizitzea. Hori lortzeko hainbat ekintza antolatzen dira, beste euskaldunekin harremanak sortzeko bidean. Azken hau ezinbestekoa da taldearen xedea lortzeko, izan ere, euskara ikasteko ez da nahikoa klasean egiten dena.

Orain arte egindakoa

Hilero ekintza zehatz eta arrakastatsu bi egiten dira: afari bat herriko elkartetan eta mendi irteera bat. Horrez gain, egutegiaren arabera beste ekintza batzuk ere egin izan dira (Txitxiburduntzi, Gaztañerre,

Olentzero, Santixauetako Barrusa), herriko beste kolektibo batzuekin ere ekintza komunak antolatu dira (liburuen aurkezpenak, laburmetraiak, mendi-irteerak...), eta bestelako ekintzak ere bai: euskaldun berrien inguruko jardunaldiak, ikastaroak, asteburupasak, DROGETE-NITTURRIIn kolaborazioak...

Asmo berriak

Orain arte egin denarekin jarraitu eta ekintza berriak: aste kultural bat, Udal Euskaltegiko ikasleekin

harremanak sortu, euskaltegietatik kanpoko jendea erakarri, inguruko herrietako euskaltegiatiko ikasleekin elkarlanean aritu eta abar.

Zure laguntza eskaini nahi izanez gero, jarri gurekin kontaktuan Kaltxango AEK Euskaltegian, esker-tuko dizuegu.

Ikasle Elkartea



ELEKTRIZITATEA ZUBIAURRE

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61
48260 ERMUA

BANAKETAK
Arrol, 97sl

BANATZAILEA:

- LUIS CAÑAS Bodegak - LOS CURROS Bodegak - JAUME SERRA Cavak eta Ardoak
- ITURRI Kontserbak - ILLUMBE Sagardo Naturala
- BASARANA Patxarana- RAIMAT - CODORNIU Bodegak Cavak
- LAUREN,S & DANNY garbiketa produktuak

Goitondo Goikoa Poligonoa, 3
Telefonoa (943) 17 60 75
48269 MALLABIA (Bizkaia)

171 Posta Kutxa - 48260 ERMUA (Bizkaia)

Erdikokale, 19
Tfno. (943) 17 22 43
ERMUA (Bizkaia)

"MENDIOLA" Jatetxea

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA ERARA

DROGETENITTURRI